2018-I-12
Número **541.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Borrokak darrai irakaskuntzan

**Kurtso amaitu arte zortzi greba egun egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza publikoan. Lehen bi greba egunak martxoaren 14an eta 15ean izango dira. Ondoren sektore ezberdinek –irakasleak; heziketa berezia; sukalde eta garbiketa; haurreskolak– astebeteko greba sektorialak egingo dituzte. Azkenik, ekainaren 12an berriro ere greba egingo dute sektore guztietako langileek. Eta, noski, horretaz gain hamaika mobilizazio egongo dira.**

**Zergatik heldu gara ataka honetara? Erantzuna erraza da. Sektore ezberdinetan 5 greba egun burutu ondoren, ikasturte honetan, irailean eta abenduan buruturiko negoziazio mahaietan, Eusko Jaurlaritzak orain arteko bere jarrera inmobilista aldatu du, baina gure aldarrikapenetako batzuei besterik ez die erantzun eta oso modu partzialean. Ondorioz, oraindik oso urrun daude, egungo egoera larriari buelta eman eta hezkuntza publikoaren oinarrizko beharrei erantzuteko azken hilabete luzeetan plazaratu ditugun aldarrikapen eta eskaeretatik.**

**Eusko Jaurlaritza hezkuntza publikoak dituen premiei erantzuteko neurriak hartzera behartzeko mobilizazioarekin jarraitzea beste biderik ez dago. Negoziazio kolektiborako bideak erabat blokeatuta, egoera honi aurre egiteko sindikatuoi Jaurlaritzak utzi digun bide bakarra mobilizazioarena izan da.**

**Hezkuntza Publikoko irakasleek, Heziketa Bereziko eta Haurreskoletako langile eta hezitzaileek, Sukaldari eta Garbitzaileek erantzun ikaragarria eman diote Gobernuari bai iazko ikasturtean baita aurtengoan deitu ditugun greba eta mobilizazioetan ere.**

#EmanBoștekoa
Garaipenari!

**Zortzi greba egun berri deitu dira: martxoan bi sektore guztietan, apiriletik aurrera astebeteko grebak sektoreka eta ekainaren 12an greba bateratua**

# MOBILIZAZIO BERRIAK IRAKASKUNTZA PUBLIKOAN

Abenduaren 19an, ELA, LAB eta Steilaseko ordezkariek agerraldi publikoa egin zuten; azken hilabeteetan egindako mobilizazioen arrakasta azpimarratu zuten, eta mezu argia helarazi zioten Eusko Jaurlaritzari: "Hezkuntza Publikoaren beharrei erantzun ezean, mobilizazioak indartu egingo ditugu". Hiru aste geroago, 2018ko urtarrilaren 11n, sindikatu horietako ordezkariek beste agerraldi publiko bat egin zuten. Inolako erantzunik jaso gabe jarraitzen zenez, ikasturte honetarako mobilizazio egutegi zabala aurkeztu zuten.

Miren Zubizarreta da ELAk irakaskuntzan duen arduraduna. Gogor salatu zuen iragan astean egindako agerraldian Jaurlaritzaren jarrera. "Negoziazio kolektiborako bideak erabat blokeatuta, egoera honi aurre egiteko sindikatuoi Jaurlaritzak utzi digun bide bakarra mobilizazioarena izan da. Zorionez langileek erantzun ikaragarria eman dute, bai iazko ikasturtean baita aurtengoan deitu ditugun greba eta mobilizazioetan ere. Jaurlaritza horren jakitun da, eta hala aitortu digute ere".

"Jaurlaritzak soilik jarreraz aldatuko du langileok hala egitera behartzen badugu. Beti izan da horrela. Oraindik oso urrun daude egungo egoera larriari buelta eman eta hezkuntza publikoaren oinarrizko beharrei erantzuteko azken hilabete luzeetan plazaratu ditugun aldarrikapen eta eskaeretatik".



### MOBILIZAZIO EGUTEGIA

**Urtarrila eta otsaila: negoziazio mahaiak eta mobilizazio ezberdinak (batzarrak, elkarretaratzeak, sozializazio eta salaketa ekimenak...)**

**Martxoa: 14-15. Greba egunak.**

**Apirilak: 23tik 27ra. Greba sektoriala: irakasleak.**

**Maiatza: 7tik 11ra. Greba sektoriala: heziketa berezia // 21etik 25era. Greba sektoriala: sukaldeak eta garbiketa.**

**Ekaina: 4tik 8ra. Greba sektoriala: haurreskolak. 12. Greba eguna.**

**(*) Ostiraleko elkarretaratzeak egongo dira ikastetxeen aurrean.**

### MEDIDAS EXIGIDAS AL GOBIERNO VASCO PARA ENCAUZAR ESTA SITUACIÓN

- Aumentar de modo significativo la inversión del Gobierno vasco en la Educación Pública y que la inversión pública en educación pase del 3,5% actual a la media de la Unión Europea, como mínimo, y progresivamente llegue al 6%, mínimo establecido por la UNESCO.
- Aumento de la plantilla en 2.000 trabajadoras y trabajadores, para poder hacer frente al incremento de matriculación de los últimos años, aumento de las cargas de trabajo y a todas las necesidades de los centros educativos.
- Reducir la enorme actual tasa de temporalidad (38% docentes, 41% Haurreskolas, 58% Educación Especial y 63% Cocina y Limpieza) al 6%.
- Descenso de un 10% en los ratios de alumnado-aula.
- Ampliar los criterios para la designación de necesidades Educativas Especiales e incrementar los recursos para abordarlas.
- Gratuidad del Consorcio Haurreskolak.
- Revertir el recorte salarial y recuperar la pérdida del poder adquisitivo del 15%.
- Realizar las sustituciones desde el primer día en todos los casos. Actualmente, en la mayoría de los casos, no se realiza hasta pasada una semana.
- No penalizar económicamente las situaciones de baja, manteniendo el salario completo desde el primer día.
- Recuperar medidas para facilitar la jubilación.
- Sacar la LOMCE de nuestras aulas y suspender Heziberri, por tratarse de una mera adaptación de la LOMCE.
- Abandonar las políticas de mercantilización para dar paso a una educación que, haciendo frente a la segregación, ayude a compensar las desigualdades de origen y sea una herramienta que facilite un desarrollo personal y social de forma integral (con la cohesión social, la integración, la diversidad, la igualdad y la coeducación como eje).
- Desarrollar un modelo de inmersión lingüística para crear alumnos y alumnas euskaldunes plurilingües.
- Ante una posible nueva Ley de Educación, el Gobierno debe posibilitar la participación y tomar en consideración a los diferentes agentes educativos y de la ciudadanía. La ciudadanía vasca debe decidir su sistema educativo acorde a su realidad y necesidades, para lo que resulta imprescindible la soberanía en este ámbito.

**#EmanBostekoaGaraipenari Eulen-eko langileek, Bilboko Euskalduna Jauregiko zerbitzu ezberdinen adjudikazioduna, euren lan eta bizi baldintzak duinduko dituen akordioa lortu dute**

# "AKORDIOA OSO ONA DA"



Eulen-eko langileek, Bilboko Euskalduna Jauregiko zerbitzu ezberdinen adjudikazioduna, euren lan eta bizi baldintzak hobetuko dituen akordioa lortu zuten urtarrilaren 10ean enpresaren zuzendaritzarekin.

ELAk akordio honen inguruko oso irakurketa positiboa egiten du, eta langileen antolakuntza eta mobilizatzeko gaitasunak azpimarratu nahi ditu. Izan ere, akordioa bi aste iraun dituen greba mugagabe baten ondorioa da.

Guztira 45 dira Eulen enpresak kontratatuta Bilboko Euskalduna Jauregian dihardutén langileak. Zuzenean kontratatutako langile horien lan bera egin arren –aretoen muntaia eta desmuntaia; laguntza teknikoa; arropazaindegiaz arduratu; ekitaldiak koordinatu; lehiatilan egon...– euren lan-baldintzak askoz ere kaxkarragoak ziren; horregatik ez zuten grebara deitzea beste aukerarik izan.

ELA-Zerbitzuak federazioko ordezkari Maite Leizegik azpimarratzen duenez, gatazka honen helburua goitik behera lortu da: Euskalduna Jauregiko azpikontratatutako langileen lan eta bizi baldintzak duintzea. "Hitzarmen berriak nabarmen hobetuko du langileen egoera. Ez da erraza izan, enpresaren zuzendaritzak hamaika traba jarri dituelako, baina azkenean ekinaren ondorioz lortu dugu".

## PRINCIPALES CONTENIDOS DEL ACUERDO

- **Vigencia 4 años (2018-2021)**
- **Cláusulas contra la Reforma Laboral: inaplicación y ultractividad indefinida.**
- **Subrogación.**
- **En lo salarial: se dignifican las categorías más bajas y se consiguen subidas importantes en el resto de categorías. Esto supone una subida salarial del 20% hasta el 45% dependiendo de las categorías.**
- **El precio hora del personal fijo discontinuo tiene una subida entre el 27% y el 38,52% dependiendo de las categorías.**
- **80 horas de reducción jornada.**
- **2 fines de semana libre de cada 5 (antes no libraban ninguno).**
- **Conversión del personal eventual en fijos discontinuos (son el 65% de la plantilla).**
- **Bolsa de trabajo para garantizar se llame estableciendo el orden de antigüedad y la experiencia.**
- **Bajas al 100% (enfermedad común y accidente laboral).**
- **Mejora en licencias.**
- **Mejora en pluses (Navidades y festivos).**
- **Se reconoce la antigüedad (la mayoría llevan 15 años en el Eulen Euskalduna) y se pagará a 0,50% el trienio.**
- **Desaparece la categoría de Peón y se convierte en Peón Especialista.**



**Unai Martínez, secretario general de la federación Industria eta Eraikuntza, valora la compra del Gobierno Vasco de acciones de CAF a Kutxabank**

# "15 MILLONES DE EUROS PÚBLICOS A KUTXABANK"




Arantza Tapia, Consejera de Industria del Gobierno Vasco, anunció el 5 de enero la adquisición a Kutxabank de 425.870 acciones de la empresa CAF. Esta compra, valorada en 15 millones de euros, supone el 1,24% de las acciones de esta compañía. Unai Martínez, secretario general de la federación Industria eta Eraikuntza, considera que con esta operación 15 millones de euros de dinero público han pasado a manos de un banco con necesidades de liquidez.

**-¿Qué lectura haces de la compra del Gobierno Vasco de acciones que Kutxabank tenía en CAF?**

-Nos han querido vender la idea de que es una decisión para "garantizar el crecimiento de la economía vasca y el arraigo de empresas vascas". La operación no aumenta el arraigo de CAF en Euskal Herria, ya que el número de acciones pertenecientes a entidades vascas continuará siendo el mismo. Además, el propio gobierno reconoce que la adquisición no le va a permitir acceder al Consejo de administración.

Es necesario recordar que mediante Cartera Social, los y las trabajadoras cuentan con el 25,46% de la acciones de CAF. Esta realidad no ha sido tenida en cuenta por la Consejera Tapia, que una vez más ha ninguneado a la parte social, que ha conocido la operación por los medios de comunicación.

Lo que ha sucedido es que 15 millones de euros de dinero público han pasado a manos de un banco con necesidades de liquidez.

**-ELA siempre ha defendido la necesidad de que una entidad financiera pública potente es imprescindible para desarrollar la política industrial...**

-Así es. Sin embargo, el Gobierno Vasco prefirió bancarizar Kutxabank y ponerla al servicio de los especuladores financieros, en lugar de que sea un instrumento para poder desarrollar proyectos industriales que generen empleo de calidad. Al mismo tiempo, Kutxabank ha decidido vender sus activos en empresas estratégicas que pueden perder su arraigo.

La privatización de Kutxabank ha supuesto un duro golpe para la industria de nuestro país. Esta entidad, que debía apostar por inversiones que favoreciesen el futuro industrial de Euskal Herria, está procediendo a vender sus participaciones en compañías vascas, con el único objetivo de adquirir liquidez.

**-ELA lleva mucho tiempo denunciando la falta de política industrial del Gobierno Vasco. ¿Qué está pasando?**

-Estamos en una coyuntura de alarma ante la imparable pérdida de los centros de decisión que está sufriendo la industria vasca. Tenemos que constatar, además, que la inmensa mayoría de las operaciones que han supuesto la deslocalización de los centros de decisión han sido aplaudidas por el Gobierno de Gasteiz.

Además, es necesario recordar que el año 2017 nos ha dejado, entre otros, dos sonoros fracasos del Departamento de Industria, que huyó de CEL cuando contaba con el 40% de las acciones de la empresa, y ha dejado hundir Xey, a pesar de contar con un 30% del accionariado.

Desde ELA queremos volver a constatar que es necesario un impulso decidido para defender la industria de nuestro país. Consideramos imprescindible apostar por una política industrial a medio y largo plazo, que apueste por una industria medioambientalmente responsable y que genere empleo de calidad.

Quienes apuesten por esos objetivos contarán con la complicidad de ELA. Desgraciadamente a día de hoy constatamos que el impulso público se centra en dar cobertura a proyectos especulativos que solo favorecen a intereses empresariales cortoplacistas.

**Pello Igeregi, responsable de negociación colectiva, analiza el estado de la negociación colectiva un año después de la firma del Acuerdo Interprofesional**

# "LA SITUACIÓN DE LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA NO SE CAMBIARÁ EN NINGUNA MESA"






El 17 de enero se cumple un año desde la firma entre los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT y la patronal Confebask del Acuerdo Interprofesional. Un acuerdo cuyo objetivo era –y es– dar prioridad a los convenios colectivos de la CAPV sobre los estatales. Pello Igeregi, responsable de negociación colectiva, analiza este acuerdo y sus consecuencias.

**-Ya ha pasado un año de ese acuerdo. ¿Qué lectura haces?**

-Si volviésemos a la misma situación, ELA tiene claro lo que haría: firmarlo nuevamente. Tras la firma de ese acuerdo los trabajadores y trabajadoras se encuentran en mejores condiciones para mejorar, a su vez, sus condiciones de trabajo. Y eso es lo único que mide ELA a la hora de firmar, o no, cualquier acuerdo, si ese acuerdo supone una mejora real para los trabajadores y trabajadoras a quienes representa o no.

Hay quien ha querido darle otra dimensión a aquel acuerdo. ELA ya dejó claro que esa firma no cambiaría el problema de fondo de la negociación colectiva. CONFEBASK tuvo una razón principal para la firma del Acuerdo, su legitimidad se había puesto en cuestión tras la aparición de diferentes patronales, y la firma sindical suponía que se la legitimaba. Por eso eliminó la cláusula de paz social que quería imponer a ELA.

**-Un año después, ¿en qué ha cambiado la situación de las y los trabajadores de la CAPV?**

-Lo más importante es que ahora se encuentran en mejores condiciones para librarse de los convenios colectivos estatales precarios que firman CCOO, UGT y la CEOE, en la que CONFEBASK está afiliada. Por ello, no es de extrañar la actitud posterior de CCOO y UGT, han puesto en cuestión la validez del Acuerdo Interprofesional.

Días antes de firmar el Acuerdo, ELA y LAB firmamos otro acuerdo de contenidos y sentido parecido en el ámbito de la Hostelería, y CCOO y UGT lo han impugnado, aunque ello pueda suponer a las nuevas incorporaciones de las Colectividades la mitad del salario. Eso ataca el núcleo fundamental del Acuerdo Interprofesional, es decir, que los acuerdos de aquí tengan preferencia, e, incluso, han puesto en duda el valor jurídico del Acuerdo. Recibiremos la respuesta del Tribunal Supremo.

**-¿Ha cambiado mucho este tiempo la negociación colectiva?**

-La situación no ha cambiado en exceso. CONFEBASK firmó el Acuerdo Interprofesional, pero no ha renunciado a utilizar el poder de la Reforma Laboral para empeorar las condiciones de trabajo, dado que su estrategia principal para ganar competitividad y dinero es la devaluación de esas condiciones de trabajo. No nos tendrán para eso.

No tenemos ninguna fe en la patronal para desbloquear la Negociación Colectiva, nuestra fe se deposita en los pasos que demos los sindicatos en la organización de los trabajadores y las trabajadoras. Los sindicatos debemos prepararnos para organizar a las plantillas y hacer huelgas en empresas y sectores.

**-¿Cuál es la receta de ELA?**

-Vemos que a muchos trabajadores y trabajadoras que sufren el trabajo precario consecuencia de la crisis, o como excusa de ésta, se les ha acabado la paciencia. Tenemos muchos ejemplos de luchas y victorias sindicales durante el 2017. Las mejoras de las condiciones de trabajo se debe a una razón principal, la huelga, y el sindicato que organiza y sostiene esa huelga.

Una militante nuestra de las residencias de Bizkaia lo explicó muy bien, "la caja de resistencia de ELA me ha permitido mirar a los ojos con dignidad durante 370 días de huelga al político que me quiere privatizada y con malas condiciones de trabajo". Es esa dignidad la que cambiará de verdad la situación de la negociación colectiva, no se va a cambiar en ninguna otra mesa.

## LABURREAN / BREVES




### • Erabateko jarraipena Tolosako Asunción klinikako greban

Tolosako Asunción klinikako langileek urtarrilaren 9 eta 10erako lan baldintza duinen alde deitutako greba egunek erabateko jarraipena izan zuten. Gainera, egun horietan zehar antolatu ziren mobilizazioetan jendetzak hartu zuen parte.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin kontzertatua dagoen klinika honetan, gaur egun 330 langile baino gehiagok egiten du lan, Tolosaldeako eskualde osoko 65.000 biztanleri osasun arreta eskainiz.

### • ELA, por los derechos de las personas presas

El sábado 13 de enero la iniciativa ciudadana Sare convocó bajo el lema *Prest gaude* una movilización en defensa de los derechos de las y los presos políticos vascos. (Este *Astekaria* se cerró la víspera).

En opinión de ELA el clamor por la resolución choca con la actitud de los gobiernos de Paris y Madrid, y en especial la del estado español, que sigue castigando al colectivo de presos y a sus familias con un régimen impropio de una democracia homologada.

### • Dos personas han fallecido ya en accidente laboral este 2018

Apenas ha comenzado el año 2018 y ya son dos las personas que han fallecido en el trabajo. Por este motivo ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE e HIRU convocaron una concentración para el viernes 12 de enero en Oiartzun. Las dos personas fallecidas eran transportistas. ELA quiere denunciar que las condiciones laborales de las y los transportistas son cada vez más precarias.

### • La Diputación de Gipuzkoa carece de medios suficientes para afrontar los temporales

Ante los problemas ocasionados por el temporal de nieve durante la primera semana del año en Gipuzkoa, ELA considera que no hay plantilla suficiente como para cubrir con un mínimo y eficiencia este tipo de situaciones, y la Diputación de Gipuzkoa es conocedora de ello. La Diputación no ha presentado todavía el Plan de Vialidad Invernal y, por tanto, se desconocen los objetivos y los medios humanos y materiales con que cuenta para este tipo de situaciones.

### • CNA plantea un expediente de extinción de contratos en Edesa Industrial y Geyser

Los comités de empresa de Edesa Industrial y Geyser convocaron el 9 de enero una asamblea de trabajadores y trabajadoras y una posterior concentración en la planta de Garagarza para denunciar la decisión de la dirección de iniciar un expediente de extinción de contratos de toda la plantilla, unas 160 personas, así como la liquidación de la sociedad Geyser Gastech.

ELA entiende que todo esto es la consecuencia de una nefasta gestión de la empresa, liderada por Jorge Parladé, cuyo objetivo es desmantelar la empresa y su actividad industrial. ELA considera que puede haber futuro para la plantilla actual y para las personas que han quedado fuera, siempre y cuando haya un plan de empleo viable. Para ello se necesita la implicación de las Instituciones, Administrador Concursal y Fagor, S.Coop., de cara a construir una alternativa a este proyecto especulativo e inasumible.



# URKULLU, ESKUINERA



Urkullu Lehendakariak zenbait elkarrizketatan berriro eraso dio ELAri; horregatik, aipatzen dituen kontu batzuk aipatu nahi ditugu artikulu honetan. Agintera iritsi zenean Urkulluk ez zituen politika neoliberalak baztertu eta "elkarrizketa sozialeko" mahaiarekin jarraitzea erabaki zuen. Honez gero mahai horretako partaide batek ere ez du azaldu langile-klasearen onerako zein lorpen gauzatu den.

Mahai horretan berariaz baztertzen dira kezkatzen gaituzten arlo nagusiak (aurrekontuak, fiskalitatea...); baina zuzenagoa litzateke esatea sindikatuekin ez direla eztabaidatzen, Jaurlaritzak eta Aldundiek aldebiko negoziazioetan erabakitzen baitituzte patronalarekin eta enpresa handiekin. Hortxe dugu oparitu dieten zerga-erreforma berria.

**Lehendakariak ELAri leporatzen dio ez dela elkarrizketa *foro* horietara agertzen.** Ez goaz hutsalak direlako, hor antzezpen mediatikoak besterik ez direlako egiten. Politika neoliberalekin ez dago elkarrizketa sozialik. Urkulluk badaki Estatu guztian zehar "kontzertazio" eredu honekin lotuta dagoela finantziazio publikoa. Eta horretara bideratu den diru publikoaren zati handi bat bertan behera geratu da kudeatu behar zutenen praktika ustelen ondorioz.

**Zer esan nahi dugu *harreman klientelarra* aipatzen dugunean?** Bada, Lehendakari jauna, adibidez zure gobernuak ELAk azpikontrata publikoetan lan-baldintzak hobetzeko bultzatu zuen HLEarekin egin zuena: ukatu zuen ez zituelako gustoko "ELAk gobernuaren politikari buruzko egindako kritikak". Urkulluren gobernuarekin ezinezkoa da akordio partzialik iristea, honetarako baldintza kritika oro amaitzea baita. Areago, Jaurlaritzak dokumentu batean esan zuen sindikatuek ordezkaritza medio jasotzen duten diru publikoa baldintzatu egin beharko litzatekeela, alegia "gobernuaren politikak babestearen" truke izango litzatekeela...

**Urkulluren ezaugarri bat da sindikatu erreibindikatiboen aurka agertzen duen jarrera.** ELA "kontrabotere" bat dela dio. Bada, orekarik gabeko mundu honetan, non gobernuek erabaki duten esku ez hartzea aberastasunaren banaketa justuagoa izan dadin, kontrabotere gisa definitzea ELArentzat ohorea da. Gogoratu beharra baitago EAEn ere desberdintasuna gero eta handiagoa dela.

**Urkulluk dioenez, hauteskunde kanpaina betean egin genuela bere aurkako agerraldi bat.** Baina ezkutatu egiten du deialdi haren arrazoia: Bere gobernuak Confebaskekin, CCOO eta UGTrekin akordio bat sinatu zuen eremu sindikalean demokrazia suntsitzeko: gutxiengoen akordioak aintzat hartzeko borondatea adierazi zuten sinatzaileek. Demokrazia garaian inor ez zen hartaraino ausartu. Zer balio dute EAJren eserlekuek parlamentuan? Jaso dituen botoek eman diotena, noski. ELAk eta LABek mobilizazio harekin horixe besterik ez genuen eskatu, alegia, langileek sindikatu bakoitzari emandako ordezkaritza errespeta zedila. Urkullu izan zen joko-arau demokratikoak urratzeko erabakiaren aitzindari, patronalari mesedea egitearren.

**Bestalde, ELAk sekula ez du eskatu Jaurlaritzarekiko harremana "esklusiboa" izaterik.** Haatik, benetako parte hartzea galdegin dugu zenbait gaitan, betoa ezarrita baitago hauen gainean. Inori ez diogu gauza bera egiteko eskubiderik ukatzen. Gobernuei eta Aldundiei eskatzen dizkiegu prozedura parte hartzaileak eta demokratikoak... Izan ere, Jaurlaritzak Confebaskekin eta enpresa handiekin opakotasun handiz egiten baititu akordioak.

Lehendakariari eta sailburu batzuei duela gutxi opari bat bidali diegu, "Zuloan" izeneko liburua. Beronetan azaltzen da Eusko Jaurlaritzak berak AHTren obretan langileei zer nolako miseria ezartzen dien. Bai, Lehendakari jauna, zure ardurapeko eremuetan esplotazioa nagusi da eta gobernuak ez du ezer egiten hori ekiditeko. Gure agintarientzat eskandalua ez da esplotazioa, honen aurka borrokatzea baizik. Liburu horretan gure herrian oso hedatuta dagoen errealitate sozial bat deskribatzen da; errealitate hori Jaurlaritzak eta hedabide askok ezkutatu egiten dute. Liburuan salatzen denak kezkatuko balitu obra eta zerbitzuen beheranzko lizitazioak berehala amaituko lirateke. Baina ez dute halakorik egiten. Hori desagerraraztea eskatzen dugunokin bilerarik ere ez dute egiten. Ezinezkoa da zurekin eta hainbat sailbururekin biltzea (Ogasun, Segurtasun, Garapen Ekonomiko sailekoak). Inork ez du ELArekin hitzordurik jarri nahi.

**Lehendakari izateko hautagai izendatu zutenetik ELAk Urkulluri hiru bilera eskatu dizkio:** Lehenengoz, hautagaiei egiten genizkien proposamenen berri emateko; erantzun ziguten "oso lanpetuta" zegoela. Beste behin saiatu ginen gure posizioa jakinarazten Confebaskek espainiar gobernuari eskatu zionean ELA eta LAB legez kanpo uzteko (besteak beste, zerga-politikaz iritzia ematen genuelako), eta azkeneko saioan nahi genion azaldu zein ondorio larriak izan dituen Zapateroren lan erreformak -zeina EAJren abstentzioari esker aurrera atera zen- ekarri duen estatalizazioak. Eskarietako bat ere ez zuen onartu.

**Duela urtebete inguru ELAk Lehendakariaren konfiantzako pertsona batengandik proposamen bat jaso zuen:** Urkulluk jakin nahi omen zuen berarekin bilera bat egiteko prest ote geunden, aurrez gairik finkatu gabe. Baietz erantzun genion. Bilera hau kudeatzen ari ginela, ELAk 2017ko aurrekontuen kritika egin zuen eta ezkerreko indarrei eskatu zien ez babesteko. Lehendakariak ez zuen hau ondo hartu eta bilera proposamena bertan behera utzi zuen. Gaur arte.

Irakaskuntzako gatazkan Urkulluk sindikatuei eskatzen die arduraz joka dezatela. Antza, bere gobernuak eta EAJk ez daukate inolako erantzukizunik azken urteetan ezarri dituzten murrizketekiko, eta ez dute PPrekin zoritxarreko *gastu-araua* hitzartu; honek administrazioei galarazi egiten die gizarte-politikara baliabide gehiago bideratzea. Areago, Jaurlaritzak 710 milioi euroko superabita lortu du aurrekontuetan –BPGaren ia %1–, Rajoyrekin hitzartutako arauek %0,6ko defizita ere baimentzen duten arren... Superabit hori lortzea ez da kudeatzaile ona izatea; eskuineko politikaren ikurra da. Ezin da onartu ditugun beharrizan sozialekin zerga-bilketak izan duen igoera derrigor zorra ordaintzeko baliatzea, zergatik eta PPrekin akordio jakin batzuk sinatu dituelako.

**Ez dute inork beren lotsak agerian uzterik nahi.** Ez dute inork euskal gizartea zentzu onean politizatzerik nahi. Ez dute halakorik nahi gizartea eskuinerantz eramaten ari direlako. Funtsean ELAri kargu hartzen diote oztoporik ez dutelako nahi gizarte gero eta kontserbadorea gidatzerakoan. Gizarte hau taxutzeko Jaurlaritzaren oinarrizko balioak "egonkortasuna eta kontsentsua" dira. Politika *likido* honek sistemak ezartzen dion guztia kudeatu nahi du, gizarte eta herriari buruzko inolako helmugarik gabe. Sistema kapitalistak inposatzen duen "kudeaketa" horren osagai nagusietako bat da sindikalismoa diziplinatu beharra.

**Adolfo Muñoz *Txiki*,**
**idazkari nagusia**

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**